Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sektore publikoko langileentzat sinatutako hitzarmenei / akordioei eta soldata-berrikuspenei buruzko nahitaezko 65 txosten egin dira (negoziazio-mahai orokorrean ordezkatutako sektoreak eta sozietate publikoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak).

5. ADMINISTRAZIO OROKORRARI, ERAKUNDE AUTONOMOEI ETA SOZIETATE PUBLIKOEI ATXIKITAKO PERTSONALAREN LAN-BALDINTZAK ERAGINKORTASUNEZ ETA EFIZIENTZIAZ ARAUTZEA, KALITATE, BIKAINTASUN ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOEN PEAN

Eusko Jaurlaritzaren eta haren sektore publikoaren zerbitzu-kontratuak ikuskatzeko txostena, 2018ari dagokiona. Funtzio Publikoko sailburuordearen 2019ko abenduaren 19ko 33/2019 ebazpena betez egin da. Ebazpen horrek Eusko Jaurlaritzaren, haren erakunde autonomoen eta sektore publiko osoaren 239 zerbitzu-kontratu ikuskatzeko bosgarren plana onartu zuen, REVASCONen inskribatutako 4.072 kontratuei buruzkoa.

Berdintasunerako Unitateari dagokionez, Berdintasunerako Batzorde Iraunkorrak 3 bilera egin ditu. Gainera, Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lehen Planaren ebaluazioa egin da.

*4. GESTIONAR LOS PROCESOS Y PROCEDIMIENTOS DE PROVISIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO Y GESTIÓN DE PERSONAL DE FORMA EFICIENTE Y CONFORME A LOS PRINCIPIOS DE PUBLICIDAD, IGUALDAD, MÉRITO Y CAPACIDAD*

*En relación con las mesas negociadoras se han celebrado tres reuniones de la Mesa General de negociación en la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para tratar algunos aspectos de las condiciones de trabajo del personal, habiéndose alcanzado un único acuerdo en materia del Plan de jubilación parcial para el personal fijo de la CAE para el año 2021. Se han tratado temas tales como la mejora de la calidad del empleo público, adecuación de permisos, teletrabajo o el marco retributivo para 2022.*

*Se han celebrado 15 reuniones de la Mesa Sectorial de Negociación del personal de la Administración General, en las que ha estado muy presente las Ofertas de Empleo Público y procesos selectivos, así como el desarrollo reglamentario de la Ley de Cuerpos y Escalas, y las medidas para la reducción de la temporalidad en el empleo público. En el mes de septiembre se creó una mesa delegada de la Administración Penitenciaria Vasca en la que se alcanzó un acuerdo en relación a las condiciones de trabajo transitorias y excepcionales aplicables al personal de prisiones, y se trataron otros temas como horarios especiales, gestión de bolsas de trabajo, teletrabajo y la Circular de jornada y horarios para el personal funcionario y laboral de la Administración General para 2022.*

*Se han emitido 65 informes preceptivos sobre convenios/acuerdos y revisiones salariales suscritos para el personal del sector público de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi (sectores representados en la Mesa General de negociación y sociedades públicas y entes públicos de derecho privado).*

*5. REGULAR DE FORMA EFICAZ Y EFICIENTE ASÍ COMO BAJO LOS PRINCIPIOS DE CALIDAD, EXCELENCIA E IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES LAS CONDICIONES DE TRABAJO DEL PERSONAL ADSCRITO A LA ADMINISTRACIÓN GENERAL, OOAA Y SOCIEDADES PÚBLICAS*

*Informe de inspección de los contratos de servicios del Gobierno Vasco y de su sector público correspondientes al año 2018. Se realiza en cumplimiento de la resolución 33/2019 del Viceconsejero de Función Pública de 19 de diciembre de 2019 que aprobó el quinto plan de inspección de 239 contratos de servicios del Gobierno Vasco, sus Organismos Autónomos y todo el Sector Público, sobre los 4.072 contratos inscritos en REVASCON.*

*En lo referente a la Unidad de Igualdad, se han celebrado 3 reuniones de la Comisión Permanente de Igualdad. Además, se ha realizado la Evaluación del Primer Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Administración General y sus Organismos Autónomos. Se*

Diagnostikorako Lantaldea abian jarri da, Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2. Plana zehaztu aurretik, eta 2 bilera egin dira. Sexu-jazarpenaren edo sexuan oinarritutako jazarpenaren aurreko Protokoloa onartu da, eta Lantaldea 4 aldiz bildu da. Eta, azkenik, Adiskidetzeari buruzko Lantaldea abian jarri da, eta bilera bat egin da.

*ha puesto en marcha el Grupo de Trabajo para el Diagnóstico previo a la concreción del 2º Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Administración General y sus Organismos Autónomos, habiéndose realizado 2 reuniones. Se ha aprobado el Protocolo ante el acoso sexual o por razón de sexo, habiéndose reunido el Grupo de Trabajo en 4 ocasiones. Y, por último, se ha puesto en marcha el Grupo de Trabajo sobre Conciliación, celebrándose una reunión.*

6. KALITATEZKO ZERBITZU OROKORRAK EMATEKO SISTEMA BAT EZARTZEA

*6. IMPLANTAR UN SISTEMA DE PRESTACIÓN DE SERVICIOS GENERALES DE CALIDAD*

Prestazio sozialak emateko prozeduren arauzko xedapenak eta barneko jarraibideak eguneratzeko eta egokitzeko helburuak egokitzeko fasean jarraitzen du, SAP informatika-euskarri berrian kudeatu ahal izateko.

*El objetivo de actualización y adecuación de disposiciones reglamentarias e instrucciones internas de los procedimientos de prestaciones sociales continúa en la fase de adecuación-adaptación para su gestión en el nuevo soporte informático SAP.*

Kudeaketa Aurreratua Administrazio Orokorreko eta Erakunde Autonomoetako unitateetan ezartzen laguntzeko Aurrerabide Programa birdiseinatu da, kudeatzeko aplikazio espezifiko bat prestatuz eta pilotuak programatuz 3 jarduera-ildo garrantzitsuenetan: Diagnostikoak, Ezarpen-proiektuak eta aholkularitza duten Autoebaluazioak.

*Se ha rediseñado el Programa Aurrerabide de apoyo a la implantación de la Gestión Avanzada en las diferentes unidades de la Administración General y Organismos Autónomos, preparando un aplicativo específico para su gestión y programando pilotos en las 3 líneas de actuación más relevantes: Diagnósticos, Proyectos de Implantación y Autoevaluaciones con asesoramiento.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eraikin eta egoitza guztietara sartzeko eta fitxatzeko txartelak egiteari dagokionez, aurreikusitako jarduera-kopurua bete da.

*En lo referido a la elaboración de tarjetas de fichar y de acceso a todos los edificios-sede de la Administración de la Comunidad Autónoma se ha cumplido con el número previsto de actuaciones.*

Administrazio Orokorraren eta erakunde autonomoen nomina-aurrerakinei eta horien itzulketaren jarraipenari dagokienez, baita horiek amortizatzeko gertatzen diren gorabehera guztien kontabilitate-kudeaketari dagokionez ere, esan behar da 2021eko ekitaldian bete egin dela gizarte-arreta honi buruzko espedienteak izapidetzeko aurreikusitako helburua, eta aurkeztutako eskaera guztiei erantzun zaiela.

*En referencia a los adelantos de nómina y seguimiento del reintegro de los mismos correspondientes a la Administración General y Organismos Autónomos, así como gestión contable de todas las incidencias que se producen para su amortización, decir que en el ejercicio 2021 se ha cumplido con el objetivo previsto de tramitación de expedientes relativos a ésta atención social dándose cobertura a todas las solicitudes presentadas.*

2020eko gizarte-funtsa banatzeko araudia eguneratu, egin eta argitaratu da, eta laguntzen deialdia ere kudeatu da. Zehatz-mehatz, 336 espediente kudeatu dira.

*Se ha procedido a actualizar, elaborar y publicar la normativa correspondiente a la distribución del Fondo Social del ejercicio 2020, así como, a la gestión de la convocatoria de ayudas elevándose el número de expedientes tramitados a 336.*

Eskubide pasiboak onartzeko espedienteetako dokumentazioaren urteko eguneratzea egin da. Guztira, 18 espediente onartu dira, 13/87 Dekretuari jarraituz; eta 67 espediente, berriz, Jaurlaritzari buruzko 7/81 Legearen arabera.

*En el marco de la actualización anual de la documentación de los expedientes en que se ha reconocido algún derecho pasivo se han trabajado un total de 18 expedientes reconocidos conforme al Decreto 13/87 y 67 al amparo de la Ley 7/81, de Gobierno.*

7. LAN - OSASUNA

*7. SALUD LABORAL*

Pandemiaren kudeaketarekin jarraitu da, eta, horretarako, dauden protokoloen eguneratzeak egin behar izan dira, dagoen egoera epidemiologikoaren arabera.

*Se ha continuado con la gestión de la pandemia, lo que ha exigido la elaboración de diferentes actualizaciones de los protocolos existentes en función de la situación epidemiológica existente.*

Langileek arriskuei buruz aurkeztutako 282 jakinarazpeni erantzun zaie. Gainera, lantokietako larrialdi-planak eta arriskuen ebaluazioak berrikusteari ekin zaio berriro.

*Se han dado respuesta a 282 comunicados de riesgos presentados por el personal. Además, se ha retomado la revisión de los planes de emergencia y las evaluaciones de riesgos de los centros de trabajo*

Ebakuazio-simulazioak egiteari ekin dio berriro.

Aurreikusitako arriskuen ebaluazioak eta arrisku psikosozialen kudeaketa egin ditu.

Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurrean jarduteko protokoloa amaitu da, eta EHAAn argitaratu da, horretarako sortutako lantaldean parte hartu ondoren.

Era berean, Berdintasunerako Batzorde Iraunkorraren bileretan eta II. Berdintasun Planaren diagnostikoa egiteko dagoen lantaldean parte hartu da.

*Se ha reanudado la realización de los simulacros de evacuación.*

*Se han hecho las evaluaciones de riesgos previstas y la gestión de los riesgos psicosociales.*

*Se ha finalizado el protocolo de actuación frente al acoso sexual y por razón de sexo y se ha publicado en el BOPV después de haber participado en el grupo de trabajo creado al efecto.*

*Igualmente se ha participado en las reuniones de la Comisión Permanente de Igualdad y en el grupo de trabajo existente para la realización del diagnóstico del II Plan de Igualdad.*

| PROGRAMA | *PROGRAMA* |
|---|---|
| 1214 INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIOAK | *1214 INFORMÁTICA Y TELECOMUNICACIONES* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 04 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA | *04 GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO* |
| ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZU OROKORRETAKO SAILBURUORDEA | *VICECONSEJERO DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS GENERALES* |

## HELBURUA

1. EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO INFORMAZIO-SISTEMEI LAGUNTZA EMATEA, ETA HORIEK ZAINTZEA ETA HOBETZEA

2. TELEKOMUNIKAZIOETAKO SEINALEAK ERAMAN ETA HEDATZEKO ZERBITZUA EMAN ETA BERMATZEA

3. EUSKO JAURLARITZAKO SARE KORPORATIBO ADMINISTRATIBOAREN KOMUNIKAZIO-ZERBITZUA EMAN ETA BERMATZEA

4. POLITIKA INFORMATIKOA BETETZEA, PROIEKTU ETA PROZESU KOMUN EDO HORIZONTALAK ETA HAIEN ZABALKUNTZA KOORDINATUZ

5. BELAUNALDI BERRIKO BANDA ZABALA KOKALEKU PERIFERIKOETAKO BIZTANLEGUNEETAN HEDATZEN AMAITZEA

## *OBJETIVO*

*1. PROPORCIONAR SOPORTE, MANTENIMIENTO Y MEJORA DE LOS SISTEMAS DE INFORMACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA CAE Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS*

*2. PRESTAR Y GARANTIZAR EL SERVICIO DE TRANSPORTE Y DIFUSIÓN DE SEÑALES DE TELECOMUNICACIONES*

*3. PRESTAR Y GARANTIZAR EL SERVICIO DE COMUNICACIONES DE LA RED CORPORATIVA ADMINISTRATIVA DEL GOBIERNO VASCO*

*4. CUMPLIMIENTO DE LA POLÍTICA INFORMÁTICA, COORDINANDO LOS PROYECTOS Y PROCESOS COMUNES U HORIZONTALES Y SU DIFUSIÓN*

*5. COMPLETAR EL DESPLIEGUE DE LA BANDA ANCHA DE NUEVA GENERACIÓN EN NÚCLEOS DE POBLACIÓN EN EMPLAZAMIENTOS PERIFÉRICOS*

## BETETZE MAILA

1. EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO INFORMAZIO-SISTEMEI LAGUNTZA EMATEA, ETA HORIEK ZAINTZEA ETA HOBETZEA

EJIE, Sarekin enkargu orokorra izenpetzearen ondorioz, honako hau egin da:

- Erabiltzaileentzako Arretan, Instalazioetan, Mantentze-lanetan eta Baliabideen Lagapenean emandako zerbitzuen kalitatea bermatu du.
- Administrazio elektronikorako plataforma teknologikoaren (Platea) bilakaera.
- Zerbitzu elektronikoen garapena eta bilakaera-hainbat sailetako proiektu komunak.
- E-fakturaren bilakaera.
- Aplikazioen mantentze-lan integrala sailetarako, zerbitzu-mailak hitzartuta.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1. PROPORCIONAR SOPORTE, MANTENIMIENTO Y MEJORA DE LOS SISTEMAS DE INFORMACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA CAE Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS*

*Por la suscripción del encargo general con EJIE, SA, se ha realizado lo siguiente:*

- *Se ha garantizado la calidad de servicios prestados en la Atención a Usuarios, Instalaciones, Mantenimiento y Cesión de Recursos.*
- *Evolución de la plataforma tecnológica para la administración electrónica (Platea).*
- *Desarrollo y evolución de servicios electrónicos-proyectos comunes multidepartamentales.*
- *Evolución de la e-factura.*
- *Mantenimiento integral de aplicaciones con acuerdos de niveles de servicio para los departamentos.*

- Lizitazio-osagaiaren bilakaera teknologikoa eta funtzionala, Kontratazio publiko elektronikoaren barruan.
- Lizitazio-osagaiaren bilakaera teknologikoa eta funtzionala, Kontratazio publiko elektronikoaren barruan.
- Software korporatiboak egokitu eta migratu dira.
- Segurtasun-proiektuak egitea.
- Hobekuntzak DataCenterren.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko bateratze-prozesua garatzea.

- *Evolución tecnológica y funcional del componente de licitación, dentro de la Contratación Pública Electrónica.*
- *Implantación de nuevos softwares para proyectos corporativos.*
- *Adecuación y migración de softwares corporativos.*
- *Realización de proyectos de seguridad.*
- *Mejoras en el DataCenter.*
- *Desarrollar el Proceso de Convergencia en materia de tecnologías de la información y la comunicación.*

2. TELEKOMUNIKAZIOETAKO SEINALEAK ERAMAN ETA HEDATZEKO ZERBITZUA EMAN ETA BERMATZEA

ITELAZPI, S.A.rekin sinatutako enkarguaren bidez, honako hau egin da:

- Eusko Jaurlaritzaren telekomunikazio-sarean erabilgarri dauden azpiegituretako jarduketa nagusiei dagokienez, energia-sistemak instalatzeari ekin zaio, hala nola artezgailuak, bateriak, etenik gabeko elikadura-sistemak, etab., eta bi telekomunikazio-dorre aldatu dira Berriatuako eta Zaldiarango zentroetan.
- TGTak transmititzeko 13 ekipo berritu dira.
- 4 ikastetxetan berritu dira F.M. transmititzeko ekipoak
- Tetra Sarearen estaldura hobetzeko 5 errepikagailu instalatu dira
- IoT proiektuan 5 gateways indoor eta 30 gateways outdoor instalatu dira.

*2. PRESTAR Y GARANTIZAR EL SERVICIO DE TRANSPORTE Y DIFUSIÓN DE SEÑALES DE TELECOMUNICACIONES*

*Por el encargo suscrito con Itelazpi, se ha realizado lo siguiente:*

- *En lo relativo a las principales actuaciones en las infraestructuras disponibles de la red de Telecomunicaciones de Gobierno Vasco, se ha acometido la instalación de sistemas de energía como: rectificadores, baterías, sistemas de alimentación ininterrumpida, etc. Se ha procedido al cambio de dos torres de telecomunicaciones en los centros de: Berriatua y Zaldiaran.*
- *El número de equipos Transmisores de T.D.T. renovados ha sido de 13.*
- *El número de equipos Transmisores de F.M. renovados ha sido en 4 centros.*
- *El número de repetidores instalados para mejorar la cobertura de la Red Tetra ha sido de 5.*
- *En el proyecto de IoT se han instalado 5 gateways indoor y 30 gateways outdoor*

3. EUSKO JAURLARITZAKO SARE KORPORATIBO ADMINISTRATIBOAREN KOMUNIKAZIO-ZERBITZUA EMAN ETA BERMATZEA

EJASK euskarri diren telekomunikazio-zerbitzuak eta kommutazio-nodoak administratu egin dira.

EJASK osatzen duten eraikinen integrazio eta desagregazioen kudeaketa administratiboa egin da, sailen erakunde autonomoen eta bertan sartutako beste erakunde batzuen beharren arabera. Bereganatutako eskumen berrietatik datozenak barne.

Eusko Jaurlaritzaren komunikazio zentral zaharretik Batera-ko VoIP zerbitzu berrirako migrazio-plana osatu da, Eusko Jaurlaritzaren konbergentzia-proiektuaren barruan.

*3. PRESTAR Y GARANTIZAR EL SERVICIO DE COMUNICACIONES DE LA RED CORPORATIVA ADMINISTRATIVA DEL GOBIERNO VASCO*

*Se ha realizado la administración de los servicios de telecomunicaciones y los nodos de conmutación que soportan la RCAGV.*

*Se ha realizado la gestión administrativa de las integraciones y desagregaciones de edificios que conforman la RCAGV, según las necesidades de los Departamentos, Organismos Autónomos y otros Entes integrados en la misma. Incluidos los provenientes de las nuevas competencias asumidas.*

*Se ha completado el plan de migración de la antigua Central de Comunicaciones de RCAGV al nuevo Servicio de VoIP de Batera, dentro del proyecto de convergencia en Gobierno Vasco.*

Eusko Jaurlaritzaren Administrazioko Sare Korporatiboan integratutako sail, erakunde publiko eta beste erakunde batzuetako pertsona guztien telekomunikazio-behar berriak administratu dira, eta Batera-ko Erabiltzaileen Atari berriaren garapenaren jarraipena egin da, behar horien guztien kudeaketa bideratuko duen tresna baita.

*Se han administrado las nuevas necesidades en telecomunicaciones de todas las personas de los distintos Departamentos, Organismos Públicos y otros Entes integrados en RCAGV, así como se ha realizado el seguimiento del desarrollo del nuevo Portal de Usuarios de Batera, herramienta que canalizará la gestión de todas estas necesidades.*

EJASKen WIFI sare korporatiboaren administrazio-kudeaketa egin da baita ere mantentze-lanen zati bat.

*Se ha realizado la gestión administrativa y parte del mantenimiento de la Red WIFI Corporativa de RCAGV.*

Eusko Jaurlaritzaren domeinuen administrazio-kudeaketa egin da.

*Se ha realizado la gestión administrativa de los Dominios de Gobierno Vasco.*

EJIErekin egindako enkarguaren bidez kontratatu eta kudeatu diren zerbitzuen administrazioa eta jarraipena egin da:

- Telefonia finkoa, Batera-ko VoIP. Komunikazio mugikorrak. - Mezularitza (SMS). - Internet. - Sarbide-sarea. - Bideokonferentzia eta grabazioa. - Lanbideko erabiltzaileentzako arreta zerbitzua EJASKn integratzea

*Administración y seguimiento de los servicios cuya contratación y gestión se han realizado mediante encargo a EJIE, S.A.:*

- *Telefonía fija, VoIP de Batera. - Comunicaciones móviles. - Mensajería (SMS). - Internet. - Red de acceso. - Videoconferencia y grabación. - Integración del servicio de atención a usuarios de Lanbide en RCAGV.*

4. POLITIKA INFORMATIKOA BETETZEA, PROIEKTU ETA PROZESU KOMUN EDO HORIZONTALAK ETA HAIEN ZABALKUNTZA KOORDINATUZ

*4. CUMPLIMIENTO DE LA POLÍTICA INFORMÁTICA, COORDINANDO LOS PROYECTOS Y PROCESOS COMUNES U HORIZONTALES Y SU DIFUSIÓN*

Eusko Jaurlaritzaren eta EJIE sozietate publikoaren arteko harremanaren ereduari dagozkion informazioa eta tarifak (Enkargu orokorra eta tarifa-ebazpenak) argitaratu dira. Harreman hori enkarguetan oinarritzen da.

*Se ha publicado la información y tarifas (Encargo General y Resoluciones de tarifas) correspondientes al modelo de relación entre el Gobierno Vasco y la Sociedad Pública EJIE, basado en Encargos.*

Bulego Teknologikoak sail, erakunde autonomo eta euskal administrazio publikoaren gainontzeko entitateei zuzendutako hainbat jarduera antolatu dira: Teknologia berriei eta proiektu korporatiboei buruzko 5 mintegi egin dira.

*Se han organizado diversas actividades del Gabinete Tecnológico dirigidas a los Departamentos, Organismos Autónomos y demás entes del Sector Público Vasco: 5 Seminarios sobre Nuevas Tecnologías y proyectos corporativos.*

Teknologia berriei buruzko «Aurrera» dibulgazio-aldizkariaren 4 ale argitaratu dira.

*Se han publicado 4 números del Boletín divulgativo «Aurrera» sobre Nuevas Tecnologías.*

Eusko Jaurlaritzako estandar teknologikoen edukia mantentzeko lanak egin dira, web-funtzionaltasunak eta hobekuntzak sartuta.

*Se ha realizado el mantenimiento del contenido de los Estándares Tecnológicos del Gobierno Vasco, incorporando distintas mejoras o funcionalidades a la web.*

"TEKgunearen" web-orria eta sare sozialen edukiak eguneratzen jarraitu da. Ekimen horren helburua ezagutzak elkartrukatzea eta softwarea edota zerbitzuak berrerabiltzea da.

*Se ha seguido actualizando los contenidos de la página web y redes sociales de "TEKgunea", iniciativa que tiene como objetivo favorecer el intercambio de conocimientos y reutilización de software o servicios.*

Administrazio Publikoei zuzendutako "TEKgunea, Working Days - Egunak. Release 1.0" jardunaldiak egin dira.

*Se han organizado las jornadas "TEKgunea, Working Days-Egunak. Release 1.0" dirigidas a las Administraciones Públicas.*

"Datuaren Gobernua"-ren esparruan, Eusko Jaurlaritzaren eremuan datuaren gobernantzak izan beharko lituzkeen oinarrizko kontzeptuak definitzen jarraitu da (rolak, tresnak…).

*En el ámbito del "gobierno del dato", se ha continuado definiendo los conceptos básicos que debería tener la gobernanza del dato en el ámbito del Gobierno Vasco (roles, herramientas…).*

Guztira, 137 txosten egin dira, informatika-gaiei buruz: baldintza teknikoen orriei buruzko 87 txosten, kudeaketa-gomendioei buruzko 48 txosten eta bestelako gaiei buruzko 2 txosten (Planak, hitzarmenak…).

*Se han evacuado un total de 137 Informes: 87 sobre Pliegos de Bases Técnicas, 48 sobre Encargos y 2 informes de otro carácter (Planes, Convenios…) en materia informática.*

Sail eta erakunde autonomoek tresna normalizatuen bidez egindako 218 zerbitzu-eskaera balioztatu dira, aztertuak eta egiaztatuak izan daitezen.

*Se han recibido un total de 218 peticiones de servicio solicitadas por los Departamentos y Organismos Autónomos a través de las herramientas normalizadas para ser estudiadas y validadas.*

Eusko Jaurlaritzako eta erakunde autonomoetako langile guztiei zibersegurtasunaren arloko ikastaro bat eman zaie. 8 prestakuntza-saio egin dira, 4 hizkuntza bakoitzeko. Guztira 2871 parte-hartzaile izan dira, eta horietatik %21 euskaraz.

*Se ha impartido para todo el personal de EJ-GV y OOAA un curso en materia de Ciberseguridad. Se han realizado 8 sesiones formativas, 4 por cada idioma, Hubo un total de 2871 asistentes con el 21% de ellos en euskera.*

Barne-auditoria bat hasi da, kanpo-auditoria baten bidez EJ-GV eta haren erakunde autonomoentzako ENS ziurtagiria lortzeko.

*Se ha iniciado una auditoria interna destinada a conseguir mediante una auditoria externa la certificación ENS para EJ-GV y sus OOAA.*

Sailek eta erakunde autonomoek eskatuta eta horretarako kontratatutako Bulego Tekniko baten bidez DBE (DBLO) DBEO 3 auditoria egin dira.

*Se han realizado, a petición de los Departamentos y OOAA, por medio de una Oficina Técnica al efecto contratada, 3 auditorías RGPD LOPD-GDD.*

Osasun sailarekin eta EJIErekin elkarlanean aritu gara e-rezeta aplikazioak Osasun Ministerioak sustatutako kanpo-auditoretza behar bezala bete dezan lortzeko, Europako errezetaren elkarreragingarritasuna lortze aldera.

*Se ha colaborado con el Departamento de Salud y EJIE para logar que la aplicación e-rezeta cumpla satisfactoriamente la auditoría externa promovida por el Ministerio de Sanidad y destinado a conseguir la Interoperabilidad de la receta europea.*

EJGVren sailen eta erakunde autonomoen zerbitzuen katalogoa ebaluatu da, arriskuak aztertuta, SENek ezarritako betetze-maila egiaztatzeko

*Se han evaluado el catálogo de Servicios de los Departamentos y OOAA de EJGV, mediante el análisis de riesgos. para verificar el cumplimiento marcado por el ENS.*

5. BELAUNALDI BERRIKO BANDA ZABALA KOKALEKU PERIFERIKOETAKO BIZTANLEGUNEETAN HEDATZEN AMAITZEA

*5. COMPLETAR EL DESPLIEGUE DE LA BANDA ANCHA DE NUEVA GENERACIÓN EN NÚCLEOS DE POBLACIÓN EN EMPLAZAMIENTOS PERIFÉRICOS*

Ekintza hori 2018an hasi zen, eta 2021ean 80 gune hedatu dira; horietatik 31 Arabakoak izan dira, 22 Bizkaikoak eta 27 Gipuzkoakoak.

*Dicha acción comenzó en 2018 y durante 2021 el número de núcleos desplegados ha sido de 80, de los cuales 31 corresponden a Araba, 22 a Bizkaia y 27 a Gipuzkoa.*

**PROGRAMA**

1215 BERRIKUNTZA ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA

**ARDURADUNA**

04 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA

ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILBURUORDEA

***PROGRAMA***

*1215 INNOVACIÓN Y ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA*

***RESPONSABLE***

*04 GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO*

*VICECONSEJERA DE RELACIONES INSTITUCIONALES*

## HELBURUA

1. POLITIKA PUBLIKOEN GARDENTASUNA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA EBALUAZIOA HOBETZEA

2. KALITATEZKO ZERBITZUEN ESKAINTZA ESKURAGARRIA OSATZEA ETA ZERBITZU ELEKTRONIKOEN ERABILERA SUSTATZEA

3. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA HOBETZEA ETA TEKNOLOGIA MODU ADIMENDUAN ERABILTZEA

4. ERREFERENTZIAZKO NAZIOARTEKO SAREETAN GOBERNU BERRIA BULTZATZEA

5. GIZARTE SAREETAKO PARTE HARTZE ERAGINKORRA BULTZATEA

## *OBJETIVO*

*1. MEJORAR LA TRANSPARENCIA, LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA Y LA EVALUACIÓN DE POLÍTICAS PÚBLICAS*

*2. COMPLETAR UNA OFERTA DE SERVICIOS DE CALIDAD Y ACCESIBLE Y PROMOVER EL USO DE SERVICIOS ELECTRÓNICOS*

*3. MEJORAR LA COLABORACIÓN INTERADMINISTRATIVA Y REALIZAR UN USO INTELIGENTE DE LA TECNOLOGÍA*

*4. PROMOVER EL GOBIERNO ABIERTO EN REDES INTERNACIONALES DE REFERENCIA*

*5. IMPULSAR LA PARTICIPACIÓN ACTIVA EN REDES SOCIALES*

## BETETZE MAILA

1. POLITIKA PUBLIKOEN GARDENTASUNA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA EBALUAZIOA HOBETZEA

2021ean, autonomia-erkidegoen gardentasun-indizean puntuazio altuenari eutsi zaio (100 puntutik 100, eta ebaluazio kualitatiboan A maila kualitatibo gorena lortu da): informazioa oso kalitate handiarekin argitaratzen da, erraz eskuratzeko moduan, aldizka eta behar bezala deskribatuta, eta datuak formatu berrerabilgarrietan argitaratzen dira hautatutako adierazle gehienetan.

2021eko apirilaren 27an, Gobernu Kontseiluak EAEko administrazio orokorrean eta sektore publikoan gardentasunaren ezarpen-mailari buruzko 2020ko balantze-txostenaren berri izateko eta gardentasuna eta gobernu ona sustatzen jarraitzeko neurriak onartzeko Erabakia hartu zuen.

2021ean 338 eskaera jaso ziren informazioa eskuratzeko eskubideari dagokionez. 219 kasutan erabateko sarbidea eman zitzaion informazioari, 26 kasutan sarbide partziala eta 12 espediente bideratuak izan ziren. 37 ez ziren onartu.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1. MEJORAR LA TRANSPARENCIA, LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA Y LA EVALUACIÓN DE POLÍTICAS PÚBLICAS*

*En 2021 se ha mantenido la máxima puntuación en el índice de transparencia de Comunidades Autónomas, con 100 puntos sobre 100 y en la evaluación cualitativa se ha alcanzado el máximo nivel cualitativo. Se publica la información con un muy alto nivel de calidad, de forma fácilmente accesible, con un carácter periódico y un adecuado carácter descriptivo, siendo datos publicados en formatos reutilizables en la generalidad de los indicadores seleccionados.*

*El 27 de abril de 2021, el Consejo de Gobierno adoptó el Acuerdo por el que se toma conocimiento del informe de balance 2020 sobre el grado de implantación de la transparencia en la administración general de la CAE y su sector público y se aprueban las medidas para proseguir con el impulso de la transparencia y el buen gobierno.*

*En 2021 se han recibido 338 solicitudes de derecho de acceso a la información. En 219 casos se dio acceso total a la información, en 26 acceso parcial y 12 expedientes fueron derivados. 37 fueron inadmitidas.*

Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen funtzionamendua sendotu da, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erreklamazioei erantzuten dien organo gisa. Batzorde horrek 126 erreklamazio kudeatu ditu.

*Se ha consolidado el funcionamiento de la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública como órgano que atiende las reclamaciones de derecho de acceso a la información pública. Dicha Comisión ha gestionado 126 reclamaciones.*

Irekiak Jaurlaritzaren agendako ekitaldi nagusien eguneroko estaldura handitzen jarraitu du. 2021ean ia 4.200 albiste sortu dituzte. Kargu publikoak betetzen dituzten pertsonen agendako 3.400 ekitaldi inguru argitaratu eta horien jarraipena egin da. Horietatik 775ek streaming bidezko emisioa izan dute.

*Irekia ha continuado incrementando las coberturas diarias de los principales actos de la agenda del Gobierno que han generado, en 2021, casi 4.200 noticias. Se han publicado y cubierto cerca de 3.400 actos de la agenda de las personas que ocupan cargos públicos, de los cuales 775 han tenido emisión con streaming.*

Irekiaren webguneko trafikoa, pandemiaren egoerak eragindako 2020ko salbuespenezko igoeraren ondoren, 2021ean normalizatu egin da: 2020arekin alderatuta 2021ean %24,35eko murrizketa egon zen arren, 2019arekin alderatuz gero %20,04ko igoera egon zen trafikoan.

*El tráfico a la web de Irekia, tras el incremento excepcional del 2020 derivado de la situación de la pandemia, se ha normalizado en el 2021. Si bien se ha dado una reducción del 24,35% en el tráfico en comparación con el 2020, se ha dado un incremento del 20,04% en comparación con el 2019.*

Irekiak parte hartzeko aukera eskaintzen du, sailen ekimen berriei dagokienez. 2021ean gobernuaren 49 proposamen ireki dira.

*Irekia ofrece la apertura a la participación en relación con las nuevas iniciativas de los diferentes departamentos. En el año 2021 se han abierto 49 propuestas gubernamentales.*

2021ean, Irekiak herritarren 369 eskaera jaso ditu, eta Topaketa izeneko ekimenaren saio bat gauzatu du, Urkullu lehendakariarekin. Herritarrek plataforman edo sare sozialen bidez parte hartu ahal izan dute galderak helaraziz.

*En el 2021 Irekia ha recibido 369 peticiones ciudadanas y ha emitido 1 sesión de la iniciativa denominada Topaketa con el Lehendakari Urkullu, en la que la ciudadanía ha podido participar bien en la plataforma o bien vía redes sociales planteando preguntas.*

Datu irekien 710 bilduma argitaratu dira Opendata Euskadin, Eusko Jaurlaritzaren datu irekien atarian. Une honetan, datuen katalogoan 7.749 dataset daude guztira.

*Se han publicado 710 conjuntos de datos abiertos en Opendata Euskadi, el portal de datos abiertos del Gobierno Vasco. En estos momentos, en el catálogo de datos hay un total de 7.749 datasets.*

Herritarrek parte hartzeko ekimenei laguntzeko Elkarlan sarien zazpigarren deialdia egin da. Deialdi honetan 45 proiektu aurkeztu dira eta 3.647 pertsonak parte hartu dute proiektuen bozketetan.

*Se ha realizado la séptima convocatoria de los premios Elkarlan para el apoyo a las iniciativas de participación ciudadana. En esta convocatoria se han presentado 45 proyectos y 3.647 personas han participado en las votaciones de los proyectos.*

2. KALITATEZKO ZERBITZUEN ESKAINTZA ESKURAGARRIA OSATZEA ETA ZERBITZU ELEKTRONIKOEN ERABILERA SUSTATZEA

*2. COMPLETAR UNA OFERTA DE SERVICIOS DE CALIDAD Y ACCESIBLE Y PROMOVER EL USO DE SERVICIOS ELECTRÓNICOS*

2021eko abenduaren 14an, Gobernu Kontseiluak Ardatz, Gobernantza, Berrikuntza Publiko eta Gobernu Digitalaren 2030 Plan Estrategikoa onartu zuen.

*El 14 de diciembre de 2021 el Consejo de Gobierno aprobó Ardatz, el Plan Estratégico de Gobernanza, Innovación Pública y Gobierno Digital 2030 en el Consejo de Gobierno.*

2021ean, herritarrei arreta emateko Zuzenean zerbitzuak 768.211 arreta eskaini zizkien herritarrei. 2020an baino % 1,25 arreta gehiago egin ziren. Arreta guztien artean, 321.250 aurrez aurrekoak izan ziren, 376.217 telefono bidezkoak, 55.225 webgunekoak eta 15.520 berehalako mezularitzakoak.

*En 2021 el servicio de atención a la ciudadanía, Zuzenean, realizó 768.211 atenciones a la ciudadanía. Es un 1,25% más de atenciones que las realizadas en 2020. Del número total de atenciones, 321.250 fueron atenciones presenciales, 376.217 atenciones telefónicas, 55.225 atenciones a través de la web y 15.520 a través de mensajería instantánea.*

Zuzenean zerbitzuaren erabiltzaileen espektatiba eta gogobetetzeari buruzko inkesta argitaratu da, 2020ko jarduerari dagokionez.

*Se ha publicado la encuesta de expectativas y satisfacción de las personas usuarias de Zuzenean relativa a la actividad del año 2020.*

Zuzenean herritarrentzako arreta-zerbitzuak zilarrezko BIKAIN, euskararen kalitate ziurtagiria lortu zuen.

*El servicio de atención a la ciudadanía, Zuzenean, obtuvo el certificado de plata de calidad en la gestión lingüística BIKAIN, euskararen kalitate ziurtagiria.*

Euskadi.eus-eko web atarien sareak ia 29 milioi erabiltzaile izan ditu, hau da, %38 gehiago, 2020ko bisitekin alderatuta. Erabiltzaile horiek 312 milioi orrialde baino gehiago bisitatu dituzte, hau da, 2020an baino %18 gehiago.

*La red de portales web de euskadi.eus ha recibido casi 29 millones de usuarios, lo que supone un incremento del 38% con respecto a las visitas del 2020. Dichos usuarios han visitado más de 312 millones de páginas, lo que supone un 18% más que en 2020.*

Euskadi.eus-en egoitza elektronikoak 3.160.000 erabiltzaile baino gehiago izan ditu, hau da, %61 gehiago, 2020ko bisitekin alderatuta. Erabiltzaile horiek 21 milioi orrialde baino gehiago bisitatu dituzte, hau da, 2020an baino %58 gehiago.

*La sede electrónica en euskadi.eus ha recibido más de 3.160.000 usuarios, lo que supone un incremento del 61% con respecto a las visitas del 2020. Dichos usuarios han visitado más de 21 millones de páginas, lo que supone un 58% más que en 2020.*

Nire Karpeta/Mi carpeta-k 1.150.000 erabiltzaile baino gehiago izan ditu, hau da, %149ko igoera izan du 2020ko bisitekin alderatuta. Erabiltzaile horiek ia 6 milioi orrialde bisitatu dituzte, hau da, 2020an baino %76 gehiago.

*Nire Karpeta/Mi carpeta ha recibido más de 1.150.000 usuarios, lo que supone un incremento del 149% con respecto a las visitas del 2020. Dichos usuarios han visitado casi 6 millones de páginas, lo que supone un 76% más que en 2020.*

Nire Karpeta/Mi carpeta bisitatu duten erabiltzaileek 3,15eko balorazioa eman diote esperientziari (1etik 5era bitarteko balorazioa), hau da, 2020an lortutako 3,10ekoa baino handiagoa.

*Los usuarios que han visitado Nire Karpeta/Mi carpeta han valorado la experiencia con un 3,15 (valoración entre 1 a 5) lo cual es superior al 3,10 obtenido en 2020.*

2021ean, herritarren identifikaziorako eta sinadurarako 217.060 bitarteko eman dira, BakQ, eta 2020an, berriz, 95.748.

*En 2021 se han emitido 217.060 medios de identificación y firma ciudadana, BakQ, frente a los 95.748 emitidos en 2020.*

3. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA HOBETZEA ETA TEKNOLOGIA MODU ADIMENDUAN ERABILTZEA

*3. MEJORAR LA COLABORACIÓN INTERADMINISTRATIVA Y REALIZAR UN USO INTELIGENTE DE LA TECNOLOGÍA*

Hainbat lan-bilera egin dira Administrazio Publikoen Batzorde Sektorialaren esparruan, administrazio elektronikoaren bultzada koordinatzeko eta kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko, informazioaren teknologiak modu adimentsuan erabiliz.

*Se han realizado diversas reuniones de trabajo en el marco de la Comisión Sectorial de Administraciones Públicas para tratar de coordinar el impulso de la administración electrónica y para mejorar la eficiencia en la gestión haciendo un uso inteligente de las tecnologías de la información.*

2021ean, Euskadiko administrazio publikoen elkarreragingarritasun-sistema orokorra sustatzen jarraitu da. Sistema horren helburua da administrazioen arteko datu-trukeak erraztea, herritarrek ez dezaten paperezko ziurtagiririk aurkeztu behar.

*En 2021 se ha continuado promoviendo el sistema general de interoperabilidad de las administraciones públicas de Euskadi que tiene por objeto facilitar los intercambios de datos entre las distintas administraciones para evitar que la ciudadanía tenga que aportar certificados en papel.*

2021ean, hauek dira erakunde lagatzaile bakoitzeko bitarteko zerbitzuak: Eusko Jaurlaritza 16, foru-aldundiak 20, toki-erakundeak 7, PID- Datuen Bitartekaritza Plataforma 45.

*En el año 2021, los servicios intermediados por entidad cedente son: Gobierno Vasco 16, Diputaciones Forales 20, Entidades Locales 7, PID- Plataforma de Intermediación de datos 45.*

Nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzak kontsumitutako zerbitzuen kopurua asko hazi dela. 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra 11.333.760 zerbitzu-datu kontsumitu dira.

*Cabe resaltar el gran crecimiento que se ha dado en el número de servicios que ha consumido el Gobierno Vasco. Entre el 1 de enero de 2021 y el 31 de diciembre de 2021 se han consumido 11.333.760 datos de servicios.*

Eusko Jaurlaritzak eskainitako zerbitzuei dagokienez (Etxebide, Izatezko Bikoteak, DSBE, Hizkuntza Eskakizunak), 2021ean 2.938.705 datu kontsumitu dira.

*Respecto a los servicios ofertados por el Gobierno Vasco (Etxebide, Parejas de hecho, RGI, Perfiles Lingüísticos…), en 2021, se han consumido 2.938.705 datos.*

2021ean, herritarrek Eusko Jaurlaritzarekin eta beste euskal administrazio publiko batzuekin ordainketak Bizum-en eta MiPago Wallet aplikazio mugikorraren bidez egin ahal izateko aukera zabaldu da. 2021ean, 20 euskal administraziok jaso dituzte ordainketak Bizum-en bidez; guztira, 695.259€. Era berean, 43 euskal administraziok 133.322€-ko ordainketak jaso dituzte MiPago Wallet bidez.

*En 2021 se ha lanzado la posibilidad de que la ciudadanía pueda realizar sus pagos con el Gobierno Vasco y otras administraciones públicas vascas a través de Bizum y la aplicación móvil MiPago Wallet. En 2021, 20 administraciones vascas han recibido pagos a través de Bizum por un importe total de 695.259€. Así mismo, 43 administraciones vascas han recibido pagos a través de MiPago Wallet por un importe de 133.322€.*

4. ERREFERENTZIAZKO NAZIOARTEKO SAREETAN GOBERNU BERRIA BULTZATZEA

Uztailean, OGP Euskadi 2021-2024ren Bigarren Ekintza Plana onartu zen. Herritarrekin batera sortutako erakunde arteko plana da eta eraldatzeko gaitasuna duten konpromisoak biltzen ditu. Konpromiso horiek gizarte zibilaren lankidetzarekin eta erakunde arteko hiru mailen artean koordinatuta ezarri behar dira, gobernu irekiaren funtsezko erronkei erantzuteko.

Modu birtualean parte hartu da Korean egin den OGPren urteroko X. goi-bileran. Bertan emititu zen Euskadik eta OGP Euskadik gobernu irekiarekin duten konpromisoari buruz Lehendakariak igorritako mezua.

OGPren edo nazioarteko beste sare batzuen 10 bileratan parte hartu da, gobernu irekia bultzatzeko.

*4. PROMOVER EL GOBIERNO ABIERTO EN REDES INTERNACIONALES DE REFERENCIA*

*En el mes de julio se aprobó el Segundo Plan de Acción de OGP Euskadi 2021-2024. Es un plan interinstitucional cocreado con la ciudadanía que incluye compromisos con capacidad transformadora que deben implementarse con la colaboración de la sociedad civil y de forma coordinada entre los tres niveles interinstitucionales para dar respuesta a retos clave en gobierno abierto.*

*Se ha participado virtualmente en la X. Cumbre Anual de OGP 2021 celebrada en Korea, en la que se ha emitido un mensaje del Lehendakari en relación al compromiso de Euskadi y OGP Euskadi con el gobierno abierto.*

*Se ha participado en 10 reuniones de OGP u otras redes internacionales para el impulso del gobierno abierto.*

5. GIZARTE SAREETAKO PARTE HARTZE ERAGINKORRA BULTZATEA

